

Nafarroako Gobernuak ezin du UPNren eredu kopiatu

EDITORIALA

Nafarroan argitaratzen den egunkari batek –Diario de Noticias– ELAk urte askotan salatu izan duena egiaztatzen dituen dokumentuak argitaratu ditu: agiri ezberdinek frogatzen dutenez urte luzez UPNko gobernuak (PSNren laguntzarekin) iruzur egin eta UGT eta CCOO sindikatuak zein Nafarroako Enpresarien Konfederazioa (CEN) finantzatu zituen.

Egoera honen aurrean ELAk Elkarrizketa Sozialeko Kontseilua desegin dezala eskatzen dio Nafarroako Gobernuari. Izan ere, berriki Nafarroako Gobernuak, CEN patronalak eta UGT-CCOO sindikatuak 2016-2019 Enplegu Planaren inguruko akordioa iragarri dute. Akordio horrek iraganeko UPNren gobernuak sortutako elkarrizketa sozialaren eredu berbera berritzen du.

ELA kezkatuta dago Nafarroako Gobernuak hartutako bidearekin, eta bazterketaz eta inposizioz betetako hainbeste urterekin haserre zegoen gehiengo sozialak bultzaturiko aldaketa politikoari ze onura egiten dion elkarrizketa sozialak galdetzen du. Beste behin ere, Gobernuak bere agenda betiko botereek ezartzen dutela erakutsi du: nahikoa da UPN, PSN, UGT, CCOO eta patronalak adierazpenak egitea amore eman eta ehunka milioi euroren kudeaketa euren esku uzteko (erakunde hauek Barcinarekin sinaturiko azken akordioan 545 milioi euro izan ziren).

Gobernuaren propagandak elkarrizketa sozial honek ez duela benetako arazoei aurre egiteko balio ezkatzen du: argazkiak Gobernuak “zerbait egiten duela” irudikatu nahi du, eta bide batez betikoan kexak diru publikoarekin isildu. Beste alde batetik, ELAk lanean jarraituko du bezerokeria-sare hau ez dadin betikotu, eta Nafarroako Parlamentuari elkarrizketa sozial antidemokratiko honetatik ateratako proposamenari ezetz bozkatzeko exijitzen dio. Elkarrizketa Sozialaren Kontseiluaren 22/2014 Foru Legea (azaroaren 12koa) Barcinak bultzatua eta UPN eta PSNren bozkin onartua izan zela eta Geroa Bai, EH Bildu, I-E eta PPK aurka bozkatu zutela gogoratu.

ELA exige al gobierno navarro disolver el Consejo de Diálogo Social y crear una comisión de investigación que sirva para depurar responsabilidades

“BUSCABAN PAZ SOCIAL Y COMBATIR A ELA Y LAB”

El *Diario de Noticias de Navarra* ha destapado en los últimos días, para el gran público, un escándalo que ELA llevaba años denunciando y que los implicados se empeñaban en negar o intentar silenciar: la financiación irregular y fraudulenta de las estructuras de UGT, CCOO y la CEN por los distintos gobiernos de UPN. Distintos documentos publicados por este diario demuestran que dirigentes de UGT, CCOO y la patronal navarra, así como un centenar de trabajadores/as de sus estructuras, cobraban sus nóminas de forma íntegra o parcial de los convenios bilaterales firmados con el Gobierno de Navarra durante el mandato de Sanz y Barcina. Se costeaban, incluso, todos los gastos corrientes de estos sindicatos y la patronal: luz, teléfono, reparaciones... Millones de euros de dinero público repartidos a lo largo de los años entre las tres organizaciones de manera opaca e irregular. Mitxel Lakuntza, responsable de ELA en Navarra, satisfecho de que por fin la sociedad conozca la cara oculta del modelo de concertación social navarro, exige la disolución inmediata del Consejo de Diálogo Social y la creación de una comisión de investigación que sirva para depurar responsabilidades políticas por lo sucedido.

-El tiempo acaba poniendo a cada uno en su sitio y la verdad acaba saliendo a la luz. Las informaciones publicadas por el Diario de Noticias en los últimos días en torno a la financiación de UGT, CCOO y la CEN a cargo del erario público son demoledoras.

-ELA llevaba años denunciado públicamente esta situación y, en los últimos tiempos, incluso judicialmente. Ahora, las evidencias son tan fuertes que estoy convencido de que acabarán poniendo a cada uno en su sitio. Esto se verá más claro con la próxima apertura –tras la demanda de ELA– del juicio por la firma de convenios de formación con UGT, CCOO y CEN a pesar de que la ley estatal lo prohibía expresamente.



El año 2008 el Gobierno presidido por Miguel Sanz entregó la Medalla de Oro de Navarra –principal condecoración de la Comunidad Foral– a UGT, CCOO y CEN. Ahora un medio de comunicación ha publicado los papeles que demuestran lo que ELA llevaba años denunciando: la financiación irregular y fraudulenta de las estructuras de UGT, CCOO y la CEN por los distintos gobiernos de UPN.

(Sigue en la página 2)

“NEOLIBERALISMOAREN GALTZAILE NAGUSIA LANGILE KLASEA DA”

Urte luzez (1988tik 2008ra) ELAko idazkari nagusi izandako Jose Elorrietak *Una mirada sindical contracorriente. Clase, territorio y nuevas alianzas* liburua aurkeztu zuen urtarilaren 31n Bilbon. Liburua Icaria argitaletxeak eta Manu Robles-Arangiz Fundazioak argitaratu dute elkarlanean.

Liburuak mendebaldeko sindikalismoaren garapenaren irakurketa kritiko bat egiten du, ELA bezalako sindikatu batentzat, eta bide batez, euskal buru-

jabetza nazionalaren aldeko balizko artikulazio sozial, sindikal eta politiko batentzat eboluzio horrek sortzen dituen aukera eta mehatxuak marrazten amaitzeko. Aurkezpenean Elorrietak azpimarratu nahi izan zuen neoliberalismoaren galtzaile nagusia langile klasea dela.

“Horregatik, inoiz baino garrantzitsuagoa da ELAren bezalako kontrabotere sindikalgintza bat, neoliberalismoari aurre egin ahal izateko”.



1.200
EUROTIK
GORA



ELA, EL SINDICATO QUE MÁS SUBE EN NAVARRA

Los datos definitivos del mes de diciembre de 2016 sitúan a ELA en el 22,74% de representatividad en Navarra (1.359 delegados/as de un total de 5.975). ELA se convierte, así, en el sindicato que más ha subido en 2016, tanto porcentualmente (0,86%) como en número de delegados/as (60 más que a principio de año). Este techo histórico sitúa al sindicato como la principal alternativa de UGT y CCOO a tan solo 169 delegados/as del primero y 66 del segundo (seguido por LAB, a más de 7 puntos y 452 delegados/as). Asimismo, ELA es el único sindicato con una presencia homogénea en todo el territorio. "Tenemos una representación por encima del 20% en todas las comarcas de Navarra, incluida la Ribera, y somos primer sindicato en la Zona Norte, Sakana", apunta Mitxel Lakuntza. Asimismo, ELA es ya el primer sindicato en el Metal y avanza en aquellos sectores más precarizados de los servicios con un incremento muy importante en las empresas de Comité de todo el territorio.

El coordinador de Navarra no duda al afirmar que "la cada vez mayor representación de ELA tiene que ver con un sindicalismo reivindicativo, que está obligado por su modelo a buscar la cercanía con la clase trabajadora y también con un gran trabajo organizativo que nos permite llegar cada vez más y mejor. La ilusión que genera un proyecto como el de ELA explica también nuestro avance".

Analizando la evolución de la representatividad sindical en Navarra cabe resaltar que en seis años UGT y CCOO han perdido más de seis puntos de representatividad, bajando del 55,59% al 49,42%. Han perdido la mayoría que entre los dos sindicatos mantenían. "La progresiva pérdida de apoyo de la clase trabajadora al modelo sindical de UGT y CCOO tiene que ver con el descrédito de una estrategia que confía su acción a la participación institucional y su dependencia económica de los gobiernos".

PORCENTAJE DE SUBIDA EN LAS ELECCIONES SINDICALES ENERO-DICIEMBRE 2016

ELA	22,74% (+0,86%)	1.359 delegad@s	(+60)
LAB	15,18% (+0,42)	907 delegad@s	(+31)
UGT	25,57% (-0,63%)	1.528 delegad@s	(-27)
CCOO	23,85% (-0,26%)	1.425 delegad@s	(-6)

-¿Qué había detrás de esta trama de financiación irregular de los distintos gobiernos de UPN a UGT, CCOO y la patronal navarra?

-Tenían dos objetivos muy claros. Por un lado, engrasando con dinero público a los sindicatos UGT y CCOO se garantizaban la paz social. Y, por otro, han promovido durante 20 años con toda clase de ayudas a UGT y CCOO para combatir el modelo sindical ELA y LAB. Se ha puesto dinero público para neutralizar las dinámicas reivindicativas y para intentar frenar el sindicalismo que incomoda a la patronal y el Gobierno.

-Esta financiación irregular ha sido sostenida por los distintos gobiernos de UPN. Sin embargo, el gobierno actual, el llamado del cambio, no acaba de romper con este entramado...

-El gobierno de Barkos ha estado mal de reflejos en todo este asunto. En el 2016 prorrogó parte de esos convenios bajo los cuales se escondía esta financiación irregular que ahora ha salido a la luz. Y la semana pasada, sin ir más lejos, ha entregado a la CEN, UGT y CCOO la gestión de cientos de millones de euros del denominado Plan de Empleo 2016-2019. Algo muy parecido a lo que hacían Sanz y Barcina. El Gobierno y el Parlamento se limitarán a aprobar la propuesta de estas organizaciones.

Para ELA, esta decisión supone dar continuidad al mismo diálogo social creado por UPN olvidando que sólo ha servido para financiar los entramados clientelares de la patronal, UGT y CCOO, pero en ningún caso para combatir la desigualdad, repartir la riqueza o defender la negociación colectiva propia de Navarra. Una vez más, son los poderes de siempre quienes marcan la agenda del llamado gobierno del cambio: bastan unas declaraciones de UPN, PSN, UGT, CCOO y la patronal para ceder

a la presión y entregarles la gestión de millones de dinero público.

-¿Qué debe hacer ahora el Gobierno de Navarra para erradicar esta situación?

-ELA exige al Gobierno que suprima inmediatamente el Consejo de Diálogo Social. También nos gustaría advertir que otorgar poder decisorio a UGT, CCOO y CEN sobre el destino de cientos de millones del Plan de Empleo podría comprometerle en una trama de financiación irregular muy similar a la desmantelada en Asturias, Extremadura y otras Comunidades Autónomas del Estado español, donde los principales responsables de alguno de estos sindicatos ya han sido detenidos por sufragar gastos propios con dinero público destinado a formación. La memoria y el relato no pueden quedar fuera del cambio. Es una cuestión que nos preocupa, al igual que es conveniente tener memoria para recordar los recortes en los servicios públicos, el despilfarro en mega-estructuras o el escándalo de la desaparición de la CAN. También es importante, para que no se repita en el futuro, que la ciudadanía no olvide que el Gobierno de UPN se dedicó a financiar con millones de euros y de manera encubierta la labor ordinaria de UGT, CCOO y CEN.

-También hemos exigido la apertura de una comisión de investigación parlamentaria...

-Así es. Es indispensable la apertura de una comisión de investigación en el Parlamento de Navarra para aclarar el destino de cientos de millones de euros (la suma de los Planes de Empleo desde 1998 a 2015). Las evidencias conocidas estos días apuntan a graves irregularidades sostenidas en el tiempo y camufladas bajo la denominación de Diálogo Social con los gobiernos de UPN y PSN. De ahí se derivarían responsabilidades políticas y enseñanzas para el futuro.

Bizkaiko erresidentzietako langileek grebari ekin diote berriro akordio duin baten alde; akordiorik lortu ezean deialdia otsaila osora zabalduko da LANGILEEK BABES HANDIA ERAKUTSI DIOTE BESTE BEHIN BIZKAIKO ERRESIDENTZIEKAKO GREBARI

Otsailaren lehenean greba eta mobilizazio txanda berri bat hasi zen Bizkaiko Erresidentzietako sektorean. Lehengo akordiorik lortu ezean deialdia otsaila osoan zehar luzatuko da. Orain arte bezala -ez dezagun ahaztu mobilizazio txanda berri hau hasi aurretik 75 greba egun egin dituztela langileek- deialdi

honek langileen babes zabala jaso du, bai greba izaten ari den deialdia eta bai mobilizazioetan parte hartzen ari den jendetza kontutan hartuta.

Grebalariak mobilizazio egitarau oparoa prestatu dute otsaila osorako: manifestazioak Bizkaia osoan zehar, enkarteladak eskualdeetan, egoiliarren

senideei informazio banaketa, itxialdiak, informazio eta sentsibilizazio kanpaina, furgoneta ibiltaria...

ELAk sektorean dituen arduradun Gaizka Miguelek eta Soraya Garciak azpimarratzen duenez, herritarren babesa eta elkartasuna oso garrantzitsuak da hiru bezalako borroketan.

"Agerikoa da ez dela erraza horrenbeste egunetan greban eta borrokan egotea. Baina gu oso pozik gaude, indartsu. Izan ere gatazka hau hasi zenetik gero eta gehiago dira elkartasuna adierazten diguten eragileak. Herritarrek badakite gure borroka bidezkoa dela, lan-baldintza eta zerbitzu sozial

duinak eskatzen ditugula. Jasotzen ari garen babes guzti honek indarra ematen digu behar adina denbora borrokan jarraitzeko. Badakigu lehenago edo beranduago gatazka hau irabaziko dugula. Denbora kontu hutsa da".



El 1 de febrero comenzó una nueva tanda de huelga y movilizaciones en las Residencias de Bizkaia. Si no se logra un acuerdo la convocatoria durará todo el mes de febrero. Al igual que las anteriores citas el seguimiento a la huelga está siendo masivo.

DENA KOPIATZEN DUTE MADRILDIK, PATRONALARI KALTE EGITEN DIONA IZAN EZIK



Ederra egin du Montorok! Sozietateen gaineko Zerga aldatu egin du: enpresa handiei oso gutxi edo ezer ez ordaintzeko aukera ematen zieten zerga-kenketak bertan behera utzi ditu. CEOek erabaki honi gogor hartu dio kargu. Gainera, espainiar patronalak, zeinaren kide den Confebask, txalotu egin du Donald Trumpek enpresei zergak erdira jaitsi izana.

Ohikoa ez bada ere, Montorok CEOEri erantzun dio "ulertezina" eta "onartezina" dela korporazio handiek ordaintzen duten portzentajea ETEena baino askoz txikiagoa izatea. Enpresa handiek %7,6 ordaintzen dute, eta ETEek, berriz, bikoitza eta gehiago. Dena dela, guztiak ere gutxieneko %25eko tasa nominaletik oso urrun geratzen dira. Montorok dioenez, egoera hori "ezin da ulertu, ezta onartu ere. Horrela ezin da gizarte-kohesioa finantzatu. Krisi aurretik iritsi ziren

diru-bilketa kopuruetara Sozietateen gaineko Zerga bidez heldu behar gara". Montoro ez da zalditik erori; ez da aitaren batean sozialista bihurtu. Baina Estatuak nekez biltzen du oinarriko zerbitzuak finantzatzeko eta defizit helburuak betetzeko behar duen dirua, eta enpresa handienek kutxara egiten duten ekarpen urria eskandaluzkoa da.

Zer gertatzen da euskal ogasunetan? Estatuako kontu bera, baina ondorioak ez dira berdinak. Hemen ez da aldaketarik egiten. Espainiar Estatuak egiten duen guztia kopiatzen da, salbuespen batekin: patronalaren kaltetan joan litekeen edozer. Zer dela eta? Zergak erabakitzen dituztenak ordaintzen ez duten enpresa horien mesedetan lanean dihardutenak direlako. Nafarroan eta EAEn sozietateen zergarekin bildutako diru kopurua zeharo jausi da, baina ez enpresen etekinak urriak direlako. Aitzitik, hori gertatu da ogasunetako eta Jaurlaritzako agintariak zerga zuloz josi dutelako; makina bat kenkari, laguntza eta salbuespeni esker enpresek, batik bat handiek, ez dute ezer ordaintzen, edo oso gutxi. Hemen, Espainian baino gutxiago.

Unai Rementeria eta Ramiro Gonzalez Bizkaiko eta Arabako diputatu nagusiek esan dute inoiz euskal enpresek "espainiarrek baino gutxiago" ordaintzen dutela. Baina hori esan eta ez dute erabakirik hartzen. Jabier Larrañaga Gipuzkoako Ogasun diputatua, euskal Tea Party fiskalaren ordezkari petoa, Adegiren ordezkari gisa agertzen da, esan baitu fiskalitateak enpresak mimatu egin behar dituela.

Bestalde, Legebiltzarrak hainbat katedraduni iruzur fiskalari buruzko txosten bat egiteko enkargua eman zien. Hauen ondorioa da EAEko iruzurra 3.000 bat milioi euro direla. Zer gertatu da datu hori plazaratu denean? Ezer ez. Aldundiek diote horrek ez daukala eurekin zerikusirik. Zein da hauen lehentasuna? DSBE erreformateza, murrizteko. Pobrezia bizi direnak zigortuko dituzte. Iruzur fiskalaz, txintik ere ez.

Bitartean, euskal patronalak ez du etsitzen; zergak areago jaitsi behar zaizkiela esaten dute, gezur batetik abiatuta: euren auzokoei baino gehiago ordaintzen omen dute. Ugazaben mezuek oihartzun handia izan ohi dute hedabideetan –EITBn, batez ere– eta beren interesak zaintzen dituzten alderdietan. Hemen ez dago Montorok. Jaurlaritzako eta ogasunetako arduradun politikoei bere egiten dute patronalaren diskurtsoa, eta elkar hartzen dute eztabaida fiskala galarazteko, herritarrek ezjakintasunean mantentze aldera. Lan errentetan egiten den harrapaketa fiskala ezinezkoa litzaiteke gure gizartean gutxieneko kultura fiskal bat bagenu.

EAJren buruak eta Lehendakariak berak ELAri kargu hartu diote, sindikatuaren eginkizuna desitxuratzeko omen duelako "politikan" sartuta. Eurentzat demokrazia botoa ematean amaitzen da, parlamentu eta gobernuak eratzeko diren uanean. Esaten dute ez dela kritika sozialik egin behar, are gutxiago antolatua bada. Agintariak hautatuta, isiltzea eta traba ez egitea besterik ez zaigu geratzen. Klase politiko honek

ezin du jasan erabateko autonomia interpelatzen duen sindikalismorik. Horregatik saritu nahi dute gutxiengo sindikala, honek ez dielako aurpegiatzen egiten duten politika neoliberalak.

Berriro diogu: Errenta altuak, kapital- eta enpresa-errentak dituzten gehienek ez dute zergarik ordaindu nahi. EAJ, PP eta PSE-EE orain arte bat etorri dira: botere politikoak men egin behar dio nahi horri. Zergarik ordaindu nahi ez dutenen alternatiba biribila da: gobernuak galdegiten diete enpresentzako laguntzak emateko, zergak jaiteko eta, ezarritako defizita betetzearren, gizarte-gastua murrizteko. Jaurlaritzako eta euskal ogasunetako inork ez dio patronalari esaten gizarte-kohesioa beren etekinekin finantzatu behar dela.

Gai hauei dagokienez, non dago ezker politikoa? Desagertuta; ezkerreko erretorika gorabehera, galdu egiten da eskuinari akordioa eskaintzen diotenean, edo akordioa ixten duenean. Hortxe ditugu adibide hurbilak: Arabako Foru Aldundian iritsi den akordioa edota Nafarroako aurrekontuen onarpena. Fiskalitatea ez da baliatzen aldaketan politiko eta sozialerako eraldatze-tresna gisa. Horixe da biltzen den diruan Europar Batasunarekiko dagoen zuloaren arrazoia; 6.000 milioi EAEn, eta 1.800 Nafarroan. Hau, ordea, ez da eztabaida publikoan aipatzen. Horrela euskal eskuinak ez du ezertan amore behar izango, eta Europa guzti-ko sistema fiskalik bidegabeenetakoa pairatzen jarraitu beharko dugu.

Adolfo Muñoz Txiki,
ELAko Idazkari Nagusia

"EUSKO JAURLARITZAK NEGOZIAZIO KOLEKTIBOIA SUNTSITU NAHI DU BERE ARDURAPEKO EREMUETAN"



ELAk sektore publikoan dituen ordezkariak protestaldi bat egin zuten urtarrilaren 30ean Ajuria Enearen egoitzaren aurrean, Eusko Jaurlaritzaren negoziazio-borondaterik eza salatuz. Zerbitzu publikoak biltzen dituen ELA-Gizalan federazioko idazkari nagusi Igor Eizagirrek gogor salatu zuen Eusko Jaurlaritzaren jarduna, sektore publikoan negoziazio kolektiboa suntsitu nahi duelako. "Propagandatik harantzago enplegu publikoa suntsitu du eta suntsitzen ari da. Begi-bistakoa da lan-baldintzak txartzeko eta soldatak jaisteko apustua egiten jarraitzen duela".

Eizagirrek azpimarratu zuenez euskal sektore publikoan enpleguaren egoera dramatiko da. "Azken urteetan 21.000 lanpostu galdu dira arlo publikoan, eta euskal administrazioan prekarietatea nabarmen hedatu da. Hiru langiletik bat aldi baterakoa da. Sektorez sektore begiratuta, Osakidetzan prekarietatea %34,8ra heldu da, Hezkuntzan %38ra, Sukalde eta Garbiketean %60ra, Administrazio Orokorrean %35era, EITBn %25era...".

Egoera honen aurrean ELAko arduradun honek kalitatezko 35.000 lanpostu egonkor sortu eta finka ditzala exijitu zion Eusko Jaurlaritzari. "Horretarako

hainbat neurri hartu beharko liriteke: ordezkapenak lehen egunetik egin behar izatea, enplegu publikoaren eskaintzetan egitura-postu eta baja begetatibo guztiak sartzea edo zerbitzuen pribatizazioa eta azpi-kontratazioa bertan behera uztea, adibidez".

Hau guztia lortzea borondate politiko kontu hutsa dela aipatu zuen Eizagirrek. "Nahi izanez gero, posible da. Nola? Adibidez zerga-iruzurraren aurka borrokatuz urtean miloika euro bilduko liriteke. Edo gurean dagoen presio fiskala Europar Batasuna osatzen duten herrialdeen batez-beste kora parekatuz. Hori eginda 2016an ia 6.000 milioi euro gehiago bilduko ziren EAEn, hots, ia-ia Eusko Jaurlaritzak osasungintzara eta hezkuntzara bideratzen duen kopurua"

En el sector público de CAPV se han destruido 21.400 empleos y se ha generalizado la precariedad: uno de cada tres trabajadores/as es interinola.

LABURREAN / BREVES



• Euskal Y-a: irtenbiderik gabeko atakan

Ekopol-ek (Ekonomia Ekologiko eta Ekologia Politikarako Ikerketa Taldeak) Euskal Y-a: irtenbiderik gabeko atakan txostena aurkeztu zuen otsailaren lehenean; Ekopol-ek ELA eta LAB sindikatuen babesarekin izan du proiektu honetan. Ekopolen iritziz, proiektu hau ikuspuntu ezberdinetatik aztertu ostean –ekonomikoa eta soziala, lurraldeari buruzkoa, politikoa, energetikoa eta kulturala– agerian geratzen da Euskal Y-a ez dela errentagarria; izan ere, linearen ustiaketak emango dituen diru-sarrerak sekula ez dira nahikoak izango erakitze kostua osatzeko.

Eta, noski, ingurumen analisiari ahaztu gabe. Ekopol-en txostenak ondorioztatzen duenez, AHTko inbertsioa ez litzazieke herritarrei saldu beharko politika berdea bailitzan. "Garrantzitsua da nabarmentzea Euskal Y-a erakitzeak ingurumeneko hainbat kontutan eragiten duela: habitat zatikatua, bioaniztasuna, lur emankorraren okupazioa, eragin bisual eta paisajistikoa, zarata, bibrazioak... Txostenak ondorioztatzen duenez –baita bidaiari eta merkantzien demandari buruzko agertoki baikorrenetan ere– euskal Y-ak ez lukeela CO2rik aurreztuko 100 urte igaro baino lehenago, ezta energiari ere 55 urte pasa arte".

• ELAK bat egiten du Korrikaren 20. ekitaldiarekin

Martxoaren 30etik apirilaren 9ra Korrikaren 20. ekitaldia egingo da, bi urtetik behin Euskal Herriko txoko guztiak zeharkatzen dituen euskararen aldeko herri-lasterketa. Aurtengo ekitaldia Otxandion hasiko da, eta amaiera Iruñean izango du. Korrikari sindikatuen babes osoa adierazi asmoz ELA AEKko ordezkariak batekin bildu zen urtarilaren 31an. ELAK,

aurreko ekitaldi guztietan bezala, bat egin nahi du Korrikarekin. Horregatik ELAK bere militantzia osoari gure hizkuntzaren festa honetan parte hartzeko gonbita luzatu nahi dio.



• La política de favorecer a las empresas eléctricas sube el IPC al 3%

La inflación interanual de enero de 2017 –según el IPC adelantado elaborado por el INE– fue del 3%, lo que significa que la cesta de consumo más habitual de la ciudadanía se ha encarecido en esa medida. Este incremento se ha debido principalmente a la subida de los precios de la electricidad y los carburantes. Mikel Noval, responsable de política social de ELA, denuncia que la política energética del gobierno español es responsable fundamental de que los precios se hayan disparado. "Es evidente la existencia de un sistema oligopólico que domina el sector energético y modifica los precios en base a sus intereses mercantilistas. Llevamos varias semanas de constantes subidas del precio de la electricidad, que no están justificadas. En lugar de tomar medidas para atajar esa espiral, el Gobierno ha optado por mirar al cielo a ver si llueve. Lo que llueve son millones para las empresas eléctricas, millones que salen del bolsillo de la gente y que hacen aumentar la realidad de la pobreza energética".

• Gizarte prestazioen aldeko eta murrizketen aurkako giza-katea

Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak Eusko Jaurlaritzak gizarte prestazioetan ezartzen dituen murrizketak salatzen giza-katea egin zuen otsailaren 3an Bilbon. Ekintza honen ostean Kartaren bozemaileek salatu zuten, "Eusko Jaurlaritza aplikatzen

dabilen politika antisozialek biztanleriaren pobretze orokorra bultzatzen dute. Aberastunaren banaketa gero eta injustuagoa da. Langabezia, prekaritatea, pobrezia eta desoreka sozial eta ekonomikoak areagotzen dituzte, aurrera daramatzan politika publikoek ez dutelako egoerari buelta ematea helburu, pertsonen beharraz lehenetsia emanez".



Testuinguru honetan, Kartaren ordezkariak bestelako politika batzuk aplikatu ditzan exijitu zioten Jaurlaritzari. Honen lekuko Diru Sarrerak bermatzeko Erretarekin gertatu zena salatu zuten. "Lanbideak kudeatzen dituen prestazio desberdinak Lanbidearteko Gutxieneko Soldatari lotuta daude: beraz, azken honen edozein igoera zuzenean aplikatu behar zaie Ondorioz, aurreko Lanbidearteko Gutxieneko Soldata %8 igo dela kontuan hartuta, berehalakoan aplikatu beharko litzazieke igoera hori bai Diru Sarrerak bermatzeko Errentari eta bai Lanbideak kudeatutako gainerako prestazioei".

• Sube en enero el paro en Hego Euskal Herria, mientras se desploman la prestaciones por desempleo

Según los datos publicados el 2 de febrero en la actualidad hay 180.319 personas registradas en el desempleo en el conjunto de Hego Euskal Herria, lo que supone un incremento de 4.101 con respecto a los datos de diciembre del 2016. En términos interanuales, el paro ha descendido en 19.586 personas.

Mikel Noval, responsable de política social, denuncia que además del altísimo nivel de paro que hay en Euskal Herria –muy superior a la media de la Unión Europea– el problema es cada vez más grave para las personas desempleadas. "Las prestaciones por desempleo de diciembre de 2016 han ascendido a 70,1 millones de euros o, lo que es lo mismo, a un gasto medio de 397,73 euros por cada persona que había registrada en desempleo. Además, las prestaciones por desempleo apenas han dado cobertura al 39,3% de las personas que se encuentran en situación de desempleo. Este dato viene disminuyendo de forma drástica y continua durante los últimos años: como ejemplo, en 2009 se daba cobertura al 69,5% de la población en paro y en 2013 al 52%".

10 DE FEBRERO -- BILBAO

ACTO PARA CELEBRAR LOS TRIUNFOS SINDICALES EMAN BOSTEKOA GARAI PENARI!

www.ela.eus / @ELAsindikatu / ELA-Facebook

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

astekaria

Barrainkua 13, Bilbao
Tel. 94 403 77 00
Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00

www.ela.eus

Franqueo concertado
nº 08/207